

2018ko Aberri Eguna LAB sindikatuaren adierazpena

Nazio Biltzarra

2018ko martxoa



Kapitalak ezarritako lan eta bizi baldintzen prekarizazioaren aurrean, lan eta bizi duina bermatuko duen estatu duina aldarrikatzen du LABek. Horretarako erronka bikoitza dugu: batetik, herri bezala burujabetzaren aroari ateak irekitzea; eta bestetik, ezker soberanistaren bulkadaz justizia sozialean eta feminismoan oinarritutako eredu sozioekonomikoa eraikitzea.

Inboluzio sozial eta politikoa abian

Eredu kapitalistan elite ekonomiko batek agintzen du, eredu antidemokratikoa da. Askotariko krisi eta gatazkak eragiten ari da kapitalismoa munduan zehar: akulturizazioa, lanaren eta bizitzaren prekarizazioa, gerra inperialistak, indarkeria sexista, hondamendi ekologikoa, energia iturri fosilen agorpena, migrazio mugimendu erraldoiak. Erronka horiei guztiei herri bezala egin behar diegu aurre. Telesforo Monzonek idatzi bezala, *“mundu berri bat nahi dugu, herri bakoitzak beretik emanez”*. Eta horretarako ezinbestekoa da burujabetza osoa eskuratzea: burujabetza politikoa, burujabetza ekonomikoa, elikadura burujabetza, kultur eta hezkuntza burujabetza. Burujabetza eskuratzea demokrazia ariketa moduan ere ulertzen dugu.

Espainiako eta Frantziako Estatuak, ordea, uko egiten jarraitzen diote herri bezala maila guztietako erabakiak hartzeko dugun eskubidea aitortzeari. Behin gatazka armatua amaituta, argi geratu da agintari espainiarrek erabiltzen zuten *“armarik gabe edozertaz mintzatu daiteke”* leloaren faltsukeria. Catalunyan ikusi bezala, Espainiako estatuak ez du inolako borondaterik bere menpe dauden herrien erabakitzeko eskubidea aitortzeko. Areago eta gehiago, inboluzio bikoitzean murgilduta dakusagu.

Batetik, IBEX-35aren aginduei jarraiki, inboluzio soziala inposatu digu PP, PSOE eta Ciudadanosek osatzen duten tri-partidismo berriak. Banketxeak diru publikoz erreskatatu ondoren, Espainiako Konstituzioan zorraren ordainketari lehentasuna ematen dion 135. artikulua txertatu zuten. Gastu mugaren eta zerbitzu publikoetarako inposatutako arauen bidez, politika publikoak erabat mugatzen dituzte. Esparru pribatuaren mesedetan egindako pentsio sistema publikoaren kontrako eraso da eraso neoliberalaren ardatzetako bat. PSOEkin erretiro-adina 67 urtera atzeratu eta pentsioa jasotzeko baldintzak gogortu ondoren, PPk pentsioen kutxaren hustuketa planifikatua eta KPlaren azpiko %0,25eko igoera lotsagarria ezarri du. Gero eta garbiago dago pentsio sistema propio bat izatea nahitaezkoa dela euskal herritar orori pentsio duina bermatu nahi badiogu.

Bestetik, inboluzio politikoan ere urrats berriak ezagutu ditugu. Mozal legea eskutan, ustelkeriak jotako alderdi batek Gobernuan jarraitzen duen bitartean, Auzitegi Nazionalak disidentziaren kontrako zigor onartezinak ezartzen ditu. Tartean behin —berriki Erregearen argazkia erretzea adierazpen askatasuna dela esanez etorri den moduan—, Estrasburgotik Estatu Espainiarraren zigor horien aurkako auziak etortzen badira ere, ibilbide judizial hori luzea eta neketsua da eta bitartean izandako ondorioen erreparaziorik ez dago. Honekin batera, 155. artikulua aplikazioa izan da azken hilabete hauetan estatuaren izaera antidemokratikoa agerian utzi duen adierazlerik argiena. Aurretik ere, LABen ikuspegitik, bai EAEn bai Nafarroan gainditu behar den marko juridiko-politikoa erasotua izan da estatuaren aldetik, oinarritzko legeen gehiegizko erabilpenagatik eta Auzitegi Konstituzionalaren sententzien bidetik ere. 155. artikulua ondotik inboluzio prozesu hori areagotu egin da, Auzitegi Konstituzionalak Hego Euskal Herriko nahiz beste lurraldeetako legebiltzarrek onartutako legeak ezabatzen ditu; beste batzuen artean EAEko administrazioen 35 orduen legea eta Nafarroan osasunerako eskubide unibertsala aitortzen zuena dira azken adibideak. LOAPA berri bat ezartzen ari da tripartidismoa, bere zerbitzura dagoen sistema judizialaren bidez.

Zentralizazioaren aldeko apustu horretan kokatu behar ditugu baita ere EAEko Kontzertu Ekonomikoa eta Nafarroako Hitzarmena jasotzen ari diren erasoak, bereziki Ciudadanosen aldetik, baina baita beste bi alderdi estatalistetako hainbat kideren aldetik ere. Kontzertua eta Hitzarmena autogobernuaren bitarteko garrantzitsuak izan arren, argi erakusten dute ez direla aldebiko harremanetan oinarritzen. Gainera, salatu beharra dago Kontzertuak eta Hitzarmenak ematen dituzten eskumenak eta zerga politika arautzeko dugun ahalmena ez dela herritarren gehiengoaren zerbitzura erabili izan, baizik eta kapitalaren mesedetan. Oso nabarmen ikusten da hau EAEn, EAJ, PSE eta PPk egin zuten zerga erreformarekin.

Frantziako Estatuak, bere aldetik, desprestigiatutako bipartidismoa ordezkatzeko elite ekonomikoek sustatutako Macron lehendakariak bere agenda neoliberalarekin jarraitzen du. Lan erreformaren ondotik, funtzio publikoaren eta trenbideen txanda da orain. Maila politikoan, Korsika eta Euskal Herrian eman diren urratsei muga jarri nahi izan die, lehen honetako ordezkariak eginiko eskariei emandako ezezekoak erakusten duen bezala.

Herri bezala, burujabetzaren aroari ateak ireki

Egoera honi herri bezala egin behar diogu aurre. Gatazkaren konponbideari dagokionez, Ipar Euskal Herrian garatutako esperientzia adierazgarria izan da zentzu honetan. Jendarte zibilaren bulkadak Estatuak jarritako oztopoak gainditzeko baldintzak sortu ditu, hala armagabetzeari nola preso politikoei dagokionez. Ordezkaritza politikoei bat egin dute gizarte zibilaren ekimenarekin eta herri ordezkariak osatu dute Parisen aurrean.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak hartutako erabakiek nahiz Ipar Euskal Herriko mugimenduen baldintzak sortu dituzte estatuen blokeoa pitzatzeko. Gobernu espainolak, aitzitik, ez du momentuz bere jarrera aldatu eta, Xabier Rey Urmenetaren heriotzarekin berriro ere agerian geratu den bezala, sufrimendu itzela eragiten duen espetxe politika kriminalari eusten dio.

Jendarte zibilaren eta instituzioen elkarlanaz, urgentziaz heldu behar zaio preso eta iheslarien afera konpontzeari. Preso gaixoak kaleratzeko, urruntze eta sakabanaketarekin amaitzeko eta salbuespen legedia bertan behera utzi eta euskal preso eta iheslariak etxeratzeko bide orri bat eratzea da erronka, estatuak mugiarazteko. Berriki jakin izan dugu, eskatu izan zaien moduan presoek egungo legediaren barruan eta norbanako moduan gradua aldatzeko eginiko eskaerei ezetza eman diela Estatuak. Norabide horretan ari da lanean Foro Soziala Hego Euskal Herriari dagokionez. LABek bere ekarpena egiten jarraituko du Foroan, konponbidearen arloan herri bezala aurrera egiteko funtsezko eragiletzat baitaukagu. Datozen hilabeteetan jauzia eman beharko litzateke konponbideari dagokionez Hego Euskal Herrian, areago ETA erakundeak bere ziklo amaiera iragarri duenean. Aitzakiarik gabe gatazkaren ondorioen konponbideari bultzada berri bat emateko garaia da, batez ere preso eta iheslariak dagokionez.

Estatus berriari dagokionez ere herri bezala jokatu beharko genuke. Hala orokorrean nola lurralde bakoitzean, honako bi irizpideren alde lan egingo du LABek **estatus politiko berrien** eztabaidari dagokionean:

- Askatu beharreko korapilo nagusia erabakitzeak eskubidearena da. Estatuarekin menpekoak izango diren harremanak edota herri burujabetza bermatzea da jokoan dagoena. Herri burujabetza demokraziaren oinarritzko printzipioa da. Euskal jendartearen, herritarren gehiengoaren borondatea da

onartu dezakegun muga bakarra. Marko berriaren definizioa eta etorkizunean markoa berritzeko erabakia hiru euskal lurraldeetako herritarren esku egon behar da.

- Herritar guztioi bizitza duina bermatzea izan behar du estatus politiko berriaren funtsak. Ildo horretan, biztanleonek erabaki ahalmen osoa ziurtatu behar du edozein jendarte eredu eraikitzeke oinarritzeko diren lan harremanetan eta babes sozial gaitan. Ezin da autogobernuaz hitz egin edo autogobernu maila ez da nahikoa, lanarekin eta babes sozialarekin zerikusia duen guztia bertako instituzioetatik kanpo erabakitzen bada. Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua, esparru sozioekonomiko propioa ekarri behar du marko berriak, edozein autogobernuren ardatza den neurrian.

Gatazkaren konponbidean bezala estatusaren aferan ere herri bezala jokatu du **Ipar Euskal Herriak**. Euskal Elkargoaren sorreran bat egin dute jendarteak eta eremu politiko ezberdinek. Berri ona izan da zalantzarik gabe, Ipar Euskal Herriaren aitortza instituzionala suposatu baitu. Alabaina, Euskal Elkargoak eremu soziolaboralean dituen eskumenak oso urriak dira. Elkargoaren sorrera beharrezkoa zen geltoki bat izan da, baina ez da inolaz ere helmuga. Ildo horretan, soberanistok hasi behar dugu hurrengo geltokia irudikatzen. LABen ikuspegitik, funtsezkoa da Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru Propioa aldarrikatzea, baita Ipar Euskal Herriari dagokionez ere. Bide horretan, Ipar Euskal Herriako negoziazio esparru propio bat irekitzeko xedez, gainontzeko sindikatuarekin eta patronal ezberdinekin hizketan ari da LAB.

Nafarroari dagokionez, beharrezkoa iruditzen zaigu estatusaren eztabaidari heltzea. Auzitegi Konstituzionalaren sententziek nahiz politika publikoak egiterakoan azaldu diren mugek argi erakusten dute burujabetzaren afera ez dela eztabaida teorikoa, baizik eta Nafarroaren garapena eta herritarren ongizatea bermatu ahal izateko ezinbesteko gakoa. Hitzarmenaren birnegotziazioaren ondorioz, Nafarroak 215 milioi euro berreskuratu ditu baina gastu mugaren izenean, diru hori politika publikoetan inbertitu ordez zorraren ordainketara bideratzea agintzen du Madrilek. Zer nolako autogobernua da Nafarroak daukana, izan badituen baliabideak nora bideratuko dituen erabakitzeke aukerarik ez badu? LABen ustez, ezinbestekoa da Nafarroaren burujabetza bermatuko duen estatus berri bat eztabaidatu eta adostea.

Amaitzeko, **EAEri** dagokionez, autogobernuaren inguruko ponentzian alderdi politiko bakoitzak egindako proposamenak ezagutu ditugu. Bereziki interesgarria iruditzen zaigu EH Bilduk egindakoa, erabakitzeke eskubidea blindatzeko neurriak jasotzeaz gain, demokrazia parte hartzailean sakontzeari begira laugarren botere bat sortzea proposatu baitu. Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparruaren beharra jasotzen da EH Bilduren nahiz, sakontasun maila txikiago batekin, EAJren proposamenetan. Gure ustez, sindikalgintza abertzaleak hamarkadetan zehar egindako borroka ideologikoak badu horretan zer ikusia.

Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozioekonomiko Propioa eraikitzeke bitartekoak bermatu behar ditu estatus berriak, horretarako nahi dugu erabakitzeke eskubidea. Lan harreman eredu berria eraikitzeke, enplegu duina ziurtatzeko, negoziazio kolektiborako eskubidea bermatzeko, parekidetasunean aurrera egiteke, lan osasuna eskubidea izan dadin edota euskaraz lan egiteke dugun eskubidea ziurtatzeko, pentsioak eta babes soziala hemen erabakitzeke, eta ez Madrilek erabakitzen duena kudeatzeko.

Hau eztabaida zentrala izango da. Patronalak ez du nahi Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Esparru Propiorik, erosoago dago marko estatalean, eta ez dugu EAJren aldetik aldarrikapen hau edukiz betetzeko

borondaterik ikusten. Orain arte burutu dituen politika ekonomiko eta neoliberalak, ez duten desberdintasunik Madriletik inposatzen zaizkigunekiko eta orain arte argi utzi dute noren alboan dauden, patronalaren alboan. Bestalde, EAJk EAerako estatu egiturak proposatzearekin baditu ere, 155. artikulua bidez Catalunyako estatu egiturak eraisten ari direnekin ari da gobernatzen.

Ezkerretik eta feminismotik eredu sozial eta ekonomiko berria eraiki

Herri ikuspegitik, maila politiko, sozial, ekonomiko nahiz kulturean erabakiak hartu ahal izateko ahalmen osoa eskuratzea da erronka. Klase ikuspegitik nahiz ikuspegi feministatik, ahalmen hori bizitza erdigunean kokatuko duen eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitze erabilitea da erronka; lana banatu (enplegua nahiz zaintza) eta aberastasuna banatzeko, justizia soziala nahiz parekidetasuna bermatzeko, nahi dugu burujabetza. Erronka bikoitz horretan eragin behar du euskal sindikalgintzak, 2017ko irailean LAB eta ELAk egindako adierazpenaren ildotik.

Langile orori lan eta bizi baldintza duinak bermatzeko eraldaketa soziala behar beharrezkoa dugu eta ez dago eraldaketa sozialik burujabetza ekonomiko eta politikorik gabe. Halere, burujabetza eskuratzeak ez du bermatzen, bere horretan, eraldaketa soziala emango denik. Horregatik, burujabetza prozesua ezkerretik elikatu beharra dago. Batetik, bertako instituzioek eta patronalek egiten dituzten politika neoliberaleri aurre eginez nahiz egungo marko juridikoak eraldaketa soziala bideratzeko ezartzen dituen mugak agerian utziz. Eta bestetik, estatus berriek ikuspegi sozialetik aurrerapauso garrantzitsuak ekar ditzaten borrokatuz.

Norabide horretan hiru erronka ditugu. Lehenik eta behin, **LAB eta ELAren adierazpena praktikara eraman, langileen aktibazioa sustatuz**. Zoritxarrez, ELAk ez du horretarako aukerarik ikusten. Izan baditugun desberdintasunak gora behera arazoak badaude bi sindikatuok eta oro har gehiengo sindikalak aldaketa sozial eta politikoak ekarriko dituen burujabetza prozesuaren aldeko eragile aktibo izan eta mobilizatzeko. Bizi dugun inboluzio garaia, begirale papera alde batera utzi eta inplikatzeko eskatzen digu. Horixe da gure erantzunkizuna.

Bigarrenik, ezker **soberanistaren esparruan aliantzak eraikitzen hasi**. Urtarrilean, eremu politiko, sindikal eta sozialaren artean agenda sozial konpartitu bat antolatzea proposatu genuen eta proposamen hori berretsi egiten dugu oraingoan. Pentsioei, oinarritzko errentari, enpleguari edota politika fiskala bezalako gaietan EAJ, Geroa Bai, PP eta *En Marcheren* politika neoliberaleri aurre egin ahal izateko indarrak biltzea beharrezkoa dela deritzogu. Bakoitzak bere behar propioei begiratzeari utzi eta elkarlanean aritzeko unea da.

Hirugarrenik, soberanismoak **egitasmo eta estrategia sozioekonomiko bat marrazten joan** behar du, prozesu soberanista neutrorik ez dagoela kontuan hartuta. Independentziaren aldeko gehiengo sozialak eraikitze, independentismoaren eskaintza sozial eta ekonomikoa zein den argi adierazi beharra dago. Eztabaida horretan eragile ezberdinek hartu behar dute parte, besteak beste sindikalgintzak. Datozen hilabeteetan, LABek bere ekarpena garatzeko asmoa du.

Aktibazio soziala ezinbestekoa da

Herri nahiz langile ikuspegitik dugun erronka bikoitza bideratzeko, aktibazio soziala (hitzaren adierarik zabalenean: borroka ideologikoa, mobilizazioa, alternatiben eraikuntza) areagotzea beharrezkoa da. Euskal

Herrian askotan esan eta egin dugun moduan eta Catalunyan ikusi dugun bezala, **herri aktibazioa** da edozein aldaketa prozesuren funtsezko erregaia.

Alde batetik, erabakitzeko eskubidearen aldeko mobilizazioa areagotu beharra dago, hala Euskal Herrian nazio bezala nola hiru lurraldeetako bakoitzean. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu erabakitzeko eskubidea edukiz betetzea, Gure Esku Dago "Hitzarmen herritarra"-rekin egiten ari den bezala. Zergatik eta zertarako nahi dugun jorratuz, erabakitzeko eskubidea eskakizun abstraktua izateari utzi eta herritarren behar eta desirekin lotutako aspirazio kolektiboan bilakatu beharra dago.

Beste alde batetik, aldarrikapen sozial zehatzen inguruko aktibazio soziala balioan jarri eta eztabaida politikoaren erdigunean kokatu beharra dago. Pentsiodunek azken hilabeteetan egindako mobilizazio jendetsuak edota emakumeek egindako Greba Feminista arrakastatsuak adierazten dute herri honek injustiziei aurre egiteko daukan indarra. Dinamika sozial hauek guztiak estrategikoak dira bere horretan, baina gainera burujabetza prozesuarekin uztartzen asmatuz gero, aldaketa sozial eta politikorako baldintzak areagotuko dira. Bi norabideko zubilan hori egitea dagokigu ezkerreko soberanista guztioi.

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak paper garrantzitsua bete dezake, eztabaida politikoan herri mugimenduaren ahotsa ozen entzun dadin. Herri Ekimen Legegilearen bidez, egungo politika publikoak aldatzea aldarrikatuko du, herritar orori oinarrizko errenta eta etxebizitza bermatzeko. Ekainaren 2an Iruñean egingo den Alternatiben Herriaren bidez, eredu ekonomiko eta sozial berri bat aldarrikatu eta bide horretan egiten ari den txinaurri lana erakutsiko du.

Azken hitza

Aldaketa politiko eta sozialak eragiteko baldintzak sortzen ari dira Euskal Herrian. Lan eta bizi baldintza duinen alde, estatu propio eta duin baten alde, borrokatzeko unea da. LABek bere onena emango du norabide horretan.